

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteartea, 2013ko maiatzaren 7a. IX. urtea. 2.589. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Tolosaldeko Mankomunitateak udal ordezkarekin batera aurkeztu du herriz herri ibiliko den 'Birziklapen Bira'. A. IMAZ

## Tolosaldeko sei herri lehiatuko dira Herriarteko Pilota Txapelketan

Alegia, Amezketa, Berrobi, Bidegoian, Tolosa eta Zizurkil ariko dira; Zesta punta Txapelketan Tolosak hartuko du parte **07**

## Abel Barriolak eta Jon Jaunarenak erraz gainditu dute lehen proba

Final-laurdenetarako sailkatu da Mikel Olazabal, promozio mailan **07**

## Sarean saltzen ikasteko aukera, Lehiberrin **02**

## Birziklatzearen garrantzia herriz herri zabalduko dute

Tolosaldeko Mankomunitateak %25eko birziklatze tasa irauli nahi du gaur bertan Alegian martxan jarriko duen 'Birziklapen Bira'-rekin; eskualdeko herri guztietatik pasako da **03**

## Otaegik eta Rekondok aurrera egin dute Urrezko Aizkoran

Larunbatean jokatuko dituzte bi final-laurdenak Urduñan eta Diman; Jexux Mari Mujika ibartarra ez da sailkatu **07**

## Tolosa CF eskubaloi taldeak bigarren nazional mailara igotzea lortu du

Igoera faseko hiru partidak irabazi dituzte, eta ondorioz Euskadiko txapeldunak dira **06**



Jokalari eta zaleek igoera ospatu zuten. I. URKIZU



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare bat** du

Maiatzak 16 • Osteguna  
20:15etan  
Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC**  
FC Barcelona  
saskibaloi partida

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira

**INFORMATIKO  
FUTBOLARI  
INJINERU  
ARRAUNLARI  
DANTZARI**

Tolosa  
Batzarretako taldeak gutxiak  
Zuzenbetea: Tolosa eta Bidegoian  
Ezkerrean  
Dantza  
Sarean parte hartzea

**BAT**

Herri Maa sarean 27 - 943 67 02 11 - [hitza@herrikoa.org](mailto:hitza@herrikoa.org) - [www.herrikoa.org](http://www.herrikoa.org)

# Lehiberrik sarean saltzen ikasteko aukera emango du

Merkatarientzat jardunaldia antolatu du Tolosaldea Garatzenek, ostegun arratsaldeko hiruretatik laueta

**Mikel Iraola** Tolosa

Saltokiak egungo bezeroen ohitura berrietara egokitze aldera, eta komertzioak sustatu eta jakiterra emateko modu ezberdinak ezagutzeko helburuarekin, merkatariei zuzendutako jardunaldi berezia antolatu du Tolosaldea Garatzenek datorren ostegunerako.

Bertan, egoera berri horretara moldatzeko web orrialde bat sortu eta on line zerbitzua eskaintzeaz hitz egingo da, baita horrek eman ditzakeen onura eta zailtasunen

inguruan ere. Horretarako, Tolosako Super-Eko supermerkatuaren esperientzia hartuko dute oinarri moduan.

Hauek euren web orrialdea kudeatzen dute, eta supermerkatuko produktu guztiak saretik erosteko aukera eskaintzen dute, dendarra gerturatu beharrik izan gabe. Neofis enpresak sortu zuen tresna hori, eta bertako adituak ere izango dira jardunaldian, gauzak nola egin azaltzeko.

Hitzordua ostegunean, hilak 9, izango da, Tolosaldea Garatzeneko Auditorioan, Lehiberri zentroan, 15:00etatik 16:00etara.

Izena emateko hiru modu daude: [aduriz@tolosaldea.net](mailto:aduriz@tolosaldea.net) helbide elektronikora idaztea; 943654501 (5 luzapena) telefonora deitzea; edo [www.tolosaldeagaratzen.net](http://www.tolosaldeagaratzen.net) webguneko formularioa betetzea.

## Irudia o Alegia



## BIODIBERTSITATEA AIPAGAI

San Juan LHI eta Aralar DBHko ingurumen batzordekideak herriko alkate Unai Iraolarekin elkartu ziren atzo goizean Alegiako udal-etxean. Iazko proposamenak errepasatu eta aurtengo lanetaz hitz egin ondoren konpromiso eta proposamen berriak aurkeztu zituzten. Iaz bezala, biodibertsitatearen gaia izango dute hizpide. Datoren urtekoa ere aurkeztu dute: Energia.<sup>HITZA</sup>



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## → Laburrak

### Maiatzak 30eko greba dela eta, batzarra gaur Anoetan

**ANOETA** ▶ Maiatzaren 30ean, eskubide sozial eta laboral duinak eta Euskal Herriarentzako eredu propio bat aldarrikatzeko euskal gehiengo sindikalak eta 60 eragile baino gehiagok deitutako greba orokorrak, Anoetako jaiek in bat egiten duela ikusita, *Maiatzaren 30 greba batzordea* antolatu dute Anoetan. Talde hau, herritar guztiak adostasunez eguna nola antolatzeko lanetan dabil, eta bilkura egingo dute gaur 18:30ean udaletxean. Herritar, komertzio, taberna, txosna batzorde eta jai batzordeei deialdia egin nahi izan diete bilerara ager daitezen.

### Bihar, San Bartolomeak antolatzen hasteko bilera

**AMEZKETA** ▶ Amezketako San Bartolome jaiak antolatzen hasteko lehen batzarra egiteko deialdia egin du festa batzordeak. Bileran, 20:30ean izango da erabilera anitzeko gelan.

### Herri Urratsera joateko autobusa, igandean

**ZIZURKIL** ▶ Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du Zizurkilgo Udalak Txepetxa Gazte Asanbladarekin elkarlanean. Udak bulegoetan eta Atxulondor, Iriarte eta Egarrin jatxeetan egongo da izena emateko aukera, maiatzaren 10era arte. Txarretak hamar euro balio ditu eta izena ematerako orduan egin beharko da ordainketa. 20 pertsonako kopurua beharko da gutxiarik autobusa ateratzeko. Autobusa, igandeko 09:25ean aterako da Pedro Mari Otaño plazatik eta 09:30ean Joxe Arregi plazatik. Itzulera, aldiz, 19:30ean izango da.

### Mundumob-eko entsegua egingo dute larunbatean

**ANOETA** ▶ MunduMOB ekimena prestatzeko, bi entsegu antolatu dituzte Anoetan. Lehena, larunbat honetan, hilaren 11n, izango da arratsaldeko bostetan pilotalekuan. Hurrengoa, maiatzaren 17an izango da, leku berean, 18:00etan.

## ↓ Iragarki laburrak

### LANA

**Etxeko lanak.** Etxeko lanetarako: goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa baduak. Kontakturako telefonoak: 943 696882 / 606 521992

## Igelak eta apoak



### Bioaniztasunetik

**Jon Ander Galarraga**  
Biologoa

**J**ada udaberri nahiko arraro hau pil-pilean dagoen honetan, gure fauna ezaguna eta aldi berean ezezaguna dugun talde polit bat ekarriko dugu gure ekokulturaren txoko xume honetara.

Honezkerok titulua irakurriko zenuten, baina beno... igel eta apo-etaz hitz egingo dugu.

Ene irakurleak badakite jada igel eta apoak ez direla ez arrainak, ez narrastiak, ez ugaztunak eta ez hegaztiak... anfibioak dira! Edo zortzi urterekin natur zientzietan ikasi nuen bezala: urlehortarrak. Ze garaiak haiek!

Gure euskara maiteak *igel* hitza, azal leuneko eta nagusiki ur-tarrak diren anfibioentzako erabiltzen du. *Apo* edo *zapo* hitza al-diz, lehorrekoak eta azal zakarra duten anfibioekin erabiltzen da. Benetan harrigarria da euskarak animaliekin daukan erlazioa ikustea.

Hala ere anfibioak ez dira soilik igel eta apoak, uhandreak ere anfibioak dira eta baita ere zezilio deritzen suge itxurako animalia tropikal arraro batzuk, gurean ez ditugunak zoritxarrez. Konturatu al zarete inoiz *uhandrea* hitzak, *ur-andrea* hitzarekin antzekotasun handia duela?

Gurean dugun aporik arruntena, apo arrunta dugu (*Buffo buf-fu*). Apo hitza esan eta burura etortzen zaigun apo handia da, Europako handiena. Emeek, batzaz beste, hamabost zentimetro dituzte, arrek aldiz, bederatzi zentimetro eskas. Apo arruntetan ez dago, beraz, Homo Sapiensetan *gizon* egiten dituzten emeenganako bortxakeria koldarrak. Zenbait Homo Sapiens? ar, apo-arrunt ar bihurtuko nituzke!

Apo arruntak duen ahalmen handiena, edozein ingurutan erraz egokitu daitekeela da, beti ere ura badago. Izan ere, apotzar honek, buru atzeko guruinetatik substantzia toxiko bat ekoizten du eta berdina egiten dute bere apaburuek.

Inoiz putzu bat apaburu mor-doiz lepo ikusten baduzue, ziur apo arruntarenak direla, inongo txori edo animalia handirik ez da arri-matzen zapore txar eta toxikoa duten apaburu horietara! Arrazoi honengatik, apaburu hauek edozein ingurutan hazten dira, harrapakarietatik guztiz salbu eta kopuru handian.

Apo arruntaren hoberena, ordea, bere ugalketa da. Pentsa, arren artean lehia handia dagoe-

la, eta ugaltzen sasoi *dena ala ezer ere* ez esaldiarekin sinplifikatzen dela.

Ugal sasoiari emea uretara gerturatzen da, urpean ar mordo egoten da bere zain. Emea uretan sartu eta arrautzak ekoizten hasten da... eta bat batean ehunka ar bere gainera doaz, emearen bizkarrean ipini eta arrautza hauek ernaldia nahian. Imajina ezazue zelako zirkoa, ehunka ar, eme gaxoa azpiratu nahian eta beste arrei ostikoak botatzen, ur, lika eta arrautza nahas-mahas batean murgilduta. Navas de Tolosako gudua? Honekin alderatuta ume jolasa!

Horrenbestearinoko bakanala izan ohi da, non ar batzuk elkar ugaltu nahian... apur bat despistatuta bukatzen dutela nonbait. Nire irakasle bikain batek zioenez, momentu horretan eskua uretan sartzen baduzu, beste hamar bat ar joango zaizkizu zure eskua ernaltzera!

Apo arrunta utzi eta goazen zapo txiki eta benetan polit bat ikustera: txantxikua (*Alites obstetricans*). Bost bat zentimetroko apo txikia da, oso polita, katu baten antzeko begi nini bertikala du eta azala bikor txikiz bete da. Nabarmena da bere burutzarra, gorputzarekin alderatuta oso handia da. Oso hedatua dugu gure lurretan, gizakiak eraikitako urmael eta iturrietan ere topa daiteke. Eta apo arruntaren alderatuta, arrak askoz ere *txukunagoak* dira, izan ere, arrautza emalduen zaintza beraiek egiten dute, bere bizkarrean txukun-txukun eramanez.

Azkenik, igel xeblere bat ekarriko dugu gurera: zuhaitz igel arrunta (*Hyla arborea*). Hau igela da eta ez du bikorrik bere azal berde eta leunean. Erraz identifikatu daiteke, zeren bere sudur zuloetatik bizkarrerainoko albo lerro beltz nabarmen bat izan ohi du. Gustuko ditu, landarez betetako ur eremuak, izan ere, bere izenak dioen bezala, landaredietako hostoetan barrena ibiltzen baita bere behatz puntetan dituen egitura berezi batzuen laguntzaz.

Bere hedadura ez da apo arrunta eta txantxikuarena bezain zabala, gurean kostaldeko lerro estu batean eta Nafarroa hegoaldean kokatzen da soilik.

Eta honekin amaitu da gure igel eta apoek egindako omenaldi txikia. Galdetu zuen aiton-amonei beraiei buruz, ziur informazio gehigarri gehiago lortuko duzue-la, izan ere, gure kulturarekin oso lotuak egon diren animaliak dira.

Informazio gehigarria, irudi, soinua eta bideo gehiago [www.euskalnatuara.net](http://www.euskalnatuara.net) orrian duzue eta, [bioaniztasunetik@hotmail.com](mailto:bioaniztasunetik@hotmail.com) ean nautzue jada 30 urte beteeta. 94 eta 74 urterekin eta sasoi betean dauden nere bi amonekin ospatu nuen nire eguna, nola ba bestela?

Gutuna

**Ibarrako Udaleko Bilduk, Aitor Gonzalez**

Prentsa bidez, Aitor Gonzalez sozialisten udal taldeko bozeramaileak bere babesa eskaintzen dio atez atekoaren aurkako plataformari. Hitz jarria erabiltzen du mozorro gisa, bere helburua plataforma horren babesean irabazi politikoren bat lortzea besterik ez dela estaltzeko; hitz jarria erabiltzen du, zehazgabetsun eta gezurrez betea, besteak beste alkateak «atez atekoa bai ala bai inposatuko zuela» dioenean bezala. Herri-tarrek jakin bezate alkate honek ez duela inoiz horrelakorik esan, ikusi bestela osoko bilkurako akta.

Udala datuak ezkututzen ibili dela dio; horrelaxe botatzen du, ezer frogatu eta zehaztu gabe, bestelako datu eta oharrik gehitu gabe; hori horrela botatzeak bazterrak nahastea eta zikintzea beste helbururik ez dauka. Udal honek hainbat hitzaldi ireki antolatu zituen gai honen inguruan, hain zuzen ere, iazko maiatzaren 23an eta 24an; era berean, ostalari eta merkatariekin ere bilera ireki bat antolatu zuen, eta aukera izan zuten zuzen zuzenean entzuteko atez atekoa dagoen herrietako gremiokideen esperientzia.

Esan du alderdi abertzaleak (1.331 boto udal hauteskudeetan, ez 1.100 Gonzalezek dioten moduan) erabaki hau hartu duela auskalo zer interesengatik. Hementxe gogoratuko diogu gure programan zer jarri genuen: proiektuak edo programak gartzea hondakin gutxiago sortzeko, birziklatzeko eta berrerabilpena bultzatzeko, eta helburu izanik zero zabor, zabor bilketa sailketa aldea apustua egitea. Eta gaur egun badakigu zer sistemak lortzen dituen emaitzarik onenak. Eta sistema hori bat dator Europako Batasunaren zuzentzaruekin eta hondakin hierarkiaren eta

errastearen aurka doa nabarmen; izan ere, errasteak lehengai izan daitezkeen hondakinak irensten ditu eta herritarren osasunarentzat benetako mehatxua da (ikus Madridleko Carlos III. Osasun Institutuaren txostena), halere, horren alde egiten du zinegotzi sozialistak eta sutuki defendatu.

Esan du, era berean, sistema hau jartzeko zer aurrekontu dagoen ez dakiela. Aurrekontuak onartu aurreko Ogasun Batzordean, adierazi zitzaion 78.000 euro aurrekusten genituela, antzeko beste herri batzuen kostuan oinarrituta, baina Spora enpresaren proiektu zehatzaren zain geundela (enpresa hori kontratatu da gai honetan aholkularitza lanak egiteko eta marxtan jartzeko). Sistema honek aldaera asko ditu eta bat aukeratu edo beste bat, aldatetako egon daitezke. Adibidez, autokontutan guk espero baino askoz ibartar gehiagok eman dute izena eta hasiera batean bi gune jartzeko asmoa bagenuen ere, gehiago jarri beharko ditugu eta horrek aurrekontuetan eragina izango du. Bestalde, aurrekontuak onartzeko osoko bilkuran mahairatu zituen galderei eta zalantzei ere erantzun zitzaie eta hasiera batean ezeko emango zuela esan arren, azkenean abstenitu egin zen.

Nolanahi ere, zer aurrekontu dagoen jakin gabe, nola esan dezake sistema hau % 20 garestiagoa dela? Datu edo zenbakirik badu, eskertuko genioke guri helaraztea. Usurbilek emandako datuak ditugu eskuartearen: 2012an, 150.000 euroko aurrezpena hondakin bilketa eta kudeaketan. Azkenik, sozialistak birziklapenaren alde daudela dio. Hala bada, albono izango gaituzte, Europar puntapuntakoa izango den bilketa eta birziklatze maila baten alde, herritar guztien jardute arduratsuen erakusle izango dena, dudarik gabe.

■ **Ibarrako Udaleko Bildu taldea.**

# Mankomunitatetik %25eko birziklatze tasa irauli nahi dute 'Birziklapen Bira'-rekin

Pello Zabala, Nerea Alias eta Iker Karrerak bat egin dute Tolosaldeko Mankomunitatearekin

Asier Imaz

Tolosaldeko etxeetan %25 birziklatzen da Tolosaldeko Mankomunitateko datuen arabera. Europako legediaren arabera, 2014. urterako zabortegiek itxita egon beharko dute, eta 2016rako, hondakinak %60 birziklatu beharko da. Errealitate hau kontuan hartuta, mankomunitateak egoera iraultzeko asmoa duela azaldu du, besteak beste, *Birziklapen Bira* abian jarri. Erroka makala ez dela onartu arren, argi dute denen artean lortuko dutela.

Egitasmoa atzo aurkeztu zuten mankomunitateko eta eskualdeko hainbat udal ordezkari, Tolosan. Birziklatzearen garrantzia azaltzeko, Tolosaldeko herri guztietan informazio gune bat jarriko dute hilabete honetan. Gune hau, plazatik plazara ibiliko da, eta herritarrak birziklatzera animatzea da bere helburua. Gema Ezeiza mankomunitateko teknikariaren esanetan, «kanpainaren helburua eskualdeko etxeetan gaika sailkatzen den kopuru hori handitzea da». Bide horretan, «birziklatzearen garrantzia eta ez birziklatzearen kaltea zabaldu nahi ditu mankomunitateak», Ezeizaren hitzetan. Teknikariaren ustez, «birziklatzearen inguruko kezka, beldur edo zalantzak



Gema Ezeiza eta Amaia Azkue mankomunitateko ordezkariak. A. IMAZ

## ↓ Birziklapen bira

### HERRIZ HERRI

- **Maiatzak 7.** Alegia.
- **Maiatzak 8.** Irura.
- **Maiatzak 9.** Lizartza.
- **Maiatzak 9.** Amezketeta.
- **Maiatzak 10.** Zizurkil. Goizean beheran, eta arratsaldean go-  
ran.
- **Maiatzak 11.** Tolosan, Trianguloa plazan.
- **Maiatzak 13.** Albiztur.
- **Maiatzak 13.** Abaltzisketa.
- **Maiatzak 14.** Villabona.

denok izan ditzakegu, eta horregatik, datozen egun hauetan guztion artean gaika ongi sailkatzen ikasiko dugu, eta kezka guztiak baztertuko ditugu».

Ekimen honekin bat egin dute, besteak beste, Pello Zabala, Nerea Alias eta Iker Karrerak, eta Tolosaldeko Mankomunitateari bere

- **Maiatzak 14.** Baliarrain.
- **Maiatzak 15.** Alkiza.
- **Maiatzak 15.** Ibarra.
- **Maiatzak 15.** Orexan hitzaldi tailerrak bakarrik.
- **Maiatzak 16.** Orendainen hitzaldi tailerrak bakarrik.
- **Maiatzak 16.** Larraulen hitzaldi tailerrak bakarrik.
- **Maiatzak 17.** Tolosa, arratsaldean Trianguloan.
- **Maiatzak 18.** Villabona.
- **Maiatzak 20.** Tolosa, arratsaldean Trianguloan.

mezua zabaltzen lagunduko diote. *Birziklapen Bira*-n informazioa jasotzeaz gain, hezitzaile eta teknikariek azalpenak emango dizkie gerturatzaren diren herritarrei. Gaiarekin lotura duten produktuak ere banatuko dituzte, besteak beste, jogurtak, lore haizak eta ongarrria.

## Irudia



# MUNDUMOB EKIMENA ORENDAINEN ETA IBARRAN

Mundumob ekimena Orendainen hasi zen larunbatean, eta jarraipena Ibarra izan zuen, igandean. Gipuzkoako Zero Zaborrek antolatu du Mundumob, eta herritarrak dantzan jarri nahi dituzte helburu zehatz batekin:

«Guztiok daukagu mundua aurreko belaunaldiek jaso zuten aukera berdinekin jasotzeko eskubidea, eta ondorioz, guztiok daukagu mundua hurrengo belaunaldiei jaso dugun aukera berdinekin uzteko betebeharra».

Orendainen ehundik gora lagun elkartu ziren, eta Ibarra ere plaza koloretzatzea lortu zuten. Mundumob-entzuek hasieraren bideoa 'tolosaldea.hitza.info' webgunean dago ikusgai. ITXEA URKIZU/JONE AMONARRIZ





Orexeak festa giroan pasa dute maiatzeko lehen asteburua, herriko festen ospakizunetan. Gainerako herriek ere izan dute, ordea, festa giroan murgiltzeko aukerarik.

## Plaza biziak, herri txikienetan ere



**Tolosa** ◊ Jada tradizio bliakatu da Oriako barandak, eta igandein hainbat herritar erakarri zituen. JOE ANONKATZ



**Tolosa** ◊ Larremendiko bizilagunen Arkateko auzo lokala berria inauguratu zuten. IGARIALANGA



**Tolosa** ◊ Bartzelonan izan da Hodei abesbatzak, elkartruke bat eginez. HEITZA

### Hitza Urkitzu

**U**harriarekin batera, eskualdeko herri guztietako jaien zerrenda abiarazi da jada, eta herri txikien txanda izan da maiatzeko lehen asteburuan. Herria, Orexako plaza festa bizirik izanda ostiral eguerdik igandera bitarte, herritarren nahiz bisitarien gozumenak.

Ostiral eguerdian hasi ziren Orexako jaiak, oilarren jaietara bereziki. Kanpandorretik udaltxeko kulkaraino jaiak izan oilarra, haur, gazte eta helduen begiradapean; txanpainarekin ospatu zuten, gainera, jaien hasiera, eta bakel aurretik pilota partidak eta bertsoak uzartu zituzten.

Larunbata izan zen, parranda zaleentzako amonak proposatu, umen goiza amaitu eta gero, batukada egin zuten herritar barrena, eta La Joledera musika taldearen kontzertuak girotu zuten iluntze eta gaua. Goizaldearte dantzan geratu zirenek, herri, DJ Ballek konpainia izan zuten.

Igande arratsaldean Lizartako dantzari gazteok eskaini zuten emanaldia, eta Julio Soto, Aiala Martín, Aitor Mendiluze eta Susirai Kollaren bertso saioaren ondoren, oilarra igo zuten orexeak, hurrengo urtera arte.

### Festa nonahi

Astearen ere, ez dira Orexan baino gutxiago izan, eta Elizmendiko auzoan larunbatean hasi ziren jaiak, Simonen jaietarakin.

Gozokiak botari irritatzen pangina, eta izan zen behintatu zen herri ere. Bi egunetan, herri kirok, trikitaliak nahiz bazkariak izan dituzte.

Adunak, berri, Elkartasun Eguna izan zen igandean, Aiztondoko Herrira-k antolatuta. Egun osoko egitaraua prestatu zuten, eta jende andana bildu zen plazan, eguerdi aldera batik bat. Ikurrina murgitzaile gain, hamaikakosako erregin zuten, eta udal hauteskiek prentsaurrekoa eskaini zuten jarraian. Pilota partidok eta bazkariarekin birbilda zuten egitasmoa.

Anoetan ere, mahaiaren bueltan ospatu dute gazteok, gaztearen XIV. urteurrena. Herri aurretik, ordea, jaiak prestatzari erekin zituen larunbatean, patata tortilla lehiaketa antolatu baitzuten, sei talde aritu ziren, tortillarik goxoa prestatzeko lanean.

Tolosan, berri, Larremendiko auzotarrak izan ziren festa giroan, larunbatean; auzolanak txukundu dituzten Arkateko erakismen auzo lokalki inauguratu dituzte, eta haurrentzako jarduerak nahiz moka dutxoak egin zituzten birilagunek.

Hodei abesbatzak, berri, Bartzelonan pasa du asteburua, Rog Kora abesbatzarekin egindako elkartruke dela eta. Azkenik, jada tradizio bliakatu ari den Oriako barandak egin zuten elkartruke dantzarik, Zerkanosi gaineko barandan. Herritar ugari bertaratu ziren saioa ikustera.



**Orexa** ◊ Oilarren jaietarakin hasi ziren, pasa den ostiralan, Orexako jaiak, eta igandera bitarte izan zuten. Igandean, Lizartako dantzari txikiak emanaldi eskaini zuten. JOE ANONKATZ



**Asteasu** ◊ Simonen jaietaren zain egon ziren haur eta gazteok Asteasuko Elizmendiko auzoan, eta gozokiak (jaurtiz hasiera eman ziren pampinak, auzoko jaiak). LUKAZU



**Aduna** ◊ Elkartasun Egunean bete egin zen Adunako plaza. JOE ANONKATZ



**Anoeta** ◊ Gaztearen urteurrena ospatzeko, patata tortilla lehiaketa egin zuten. LUKAZU



**Kirolak**

↓ **Kirol emaitzak**

**ARETO FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA**

**29. jardunaldia**

Gora-Ibarra	4-7
Sestao-Laskorain	0-2
Buruntza-Egintza	11-2
Inter-Tolosala	3-1

**Hurrengo jardunaldia**

Ibarra-San Jorge

Egintza-Aurrera

Laskorain-Buruntza

Tolosala-Sestao

**FUTBOLA**

**ERREGIONAL OHOREZKOA**

**30. jardunaldia**

Tolosa-Hernani 1-2

**Hurrengo jardunaldia**

Tolosa-Zarautz

**PILOTA**

**Buruz buruzko Txapelketa**

**Maila nagusia**

Barriola	22
Arretxe II	11
Jaunarena	22
Olaizola II	3

**Promozio maila**

Olazabal	22
Apezetxea	16

**I. Ogi Berri Txapelketa,**

**Migel Soroa Oroimenezkoa**

**Jubenilak**

Ugalde-Alduntzin	22
Mujika-Sanchez	10

**Elite maila**

Elezkano-Diez	13
Urbieta-Etxamendi	22

**SASKIBALOIA**

**LEHEN MAILA**

**28. jardunaldia**

Biok zerbitzuak	73
Bide Bide Donostia	69

**Hurrengo jardunaldia**

**Bide Bide Donostia**

Tabirako Baque

**AIZKORA**

**Urrezko Aizkora**

**Final zortzirenak**

Joseba Otaegi zizurkildarra eta Jon Rekondo leitzarra sailkatu dira final-laurdenak jokatzeko.



Tolosako Usabal kiroldegian jokatu dituzte bigarren nazional mailarako igoera faseko partidak. ITZEA URKIZU

# Bigarren nazional mailarako pausoa eman du Tolosa CFk

Igoera faseko hiru partidak irabazi dituzte tolosarrek; Euskadiko txapelketa ere irabazi dute

**Iñigo Terradillos** Tolosa

Festa biribila izan da Tolosa CFko eskubaloi taldearentzat igaro berri den asteburua. Batetik, igoera fasea bikaintasunez gainditu dute, beraz, datorren denboraldian bigarren nazional mailan ariko dira, eta bestetik, Euskadiko Txapelketa bilakatu dira igoera faseko hiru partidak irabazi ostean.

Eskubaloiaren plaza izan da Tolosako Usabal kiroldegia asteburuan. Ostiraletik igandera Tolosa CF, Zarautz, Legazpi eta Erandio taldeen arteko partidak izan dira. Lau taldeak Lurralde-kako mailatik bigarren nazional mailarako igoera zuten jokoan. Bada, Tolosak jokatu zituen hiru partidak irabazi zituen, beraz, mailaz igoetza lortu du. Tolosarrekin batera, Zarautz ere igoko da, hirutik bi partida irabazi baitzituen.



Tolosa CFko eskubaloi taldeko jokalariek garaikurrarekin. HITZA

Eskubaloiaren gailurrean ibili izan da Tolosa CF nazional mailako lehenengoan nahiz bigarrenen, baina urte luzez beheko mailatan lehiatu izan da. Ia 30 urteren ostean lortu dute maila nazionalan jokatzeko txartela, eta «oso gustura» daude. Lortutakoaz gain, «pozik» daude egunotan herriarrek adierazi dieten babesarekin. Izan ere, Usabal kiroldegia eskubaloi zaleez bete da asteburuan. Herenegungo partidak, esaterako, 700 lagun inguruk jarraitu zuten tolosarren norgehiagoka. Tolosa CFtik aurrerantzean ere eskubaloi jarraitza animatu nahi dituzte tolosar guztiak, eta gaztetxoak gonbidatu dituzte kirol honetan hastera.

Halaber, gogoratu dute gaztetxo-en mailako taldeak oso ondo ari direla, eta maila «bikaina» ari direla erakusten.

**Mailaz mantentzea**

Datorren denboraldiari begira, tolosarrak jakitun dira maila «gogorrago» batean ariko direla, eta horregatik, mailaz mantentzea izango dute helburu. «Kategoria ezagutuz joango gara gutxinaka, eta behin bertan egokituta helburuak zehaztuko ditugu», azaldu du Yulen Oriden jokalaria.

Herenegun Usabal kiroldegitik Tolosako kaleetara zabaldu zuten euren poza, eta txarangaren doinuekin lagundurik kalejiran aritu ziren.

## Irigoienek irabazi du Gorostidi Harria Txapelketa, 13 jasoaldirekin

Adunako pilotalekuko jaialdian, Josetxo Urrutia leitzarra azken postuan sailkatu da bi jasoaldirekin

**I. Terradillos** Aduna

Aimar Irigoien da aurtengo Gorostidi Harria Txapelketako irabazlea. Adunan herenegun jokatu zen txapelketako faborito nagusia errezilidarra zen. 175 kiloko zilindroa 13 aldiz berdindu zuen bost minutuko txandan, eta marka hori beste inork hobetu ezin izan zuenez, berak jantzi zuen txapela.

Joseba Ostolaza zestoarra bi jasoaldira geratu zen, harria 11 aldiz bizkarreratu ostean. Hirugarren postuan, Eizmendi zarautzarrera geratu zen, 9 jasoaldirekin. Laugarren, berriz, Izeta II.a aiarra sailkatu zen, 7 jasoaldirekin. Bosgarren, Telleria geratu zen 6 jasoaldirekin; seigarren Ugartemendia izan zen, sei jasoaldirekin. Telleriaren marka berdindu zuen, baina, arautegiak arinena dena geratzen dela aurretik dioenez, Telleriak hartu zuen bosgarren postua. Zazpigarren Lertxundi geratu zen, hiru jasoaldirekin, eta Josetxo Urrutia leitzarra azken postuan sailkatu zen, 2 jasoaldirekin. Adunako pilotalekua txiki geratu zen. 700 lagun inguru elkartu ziren, eta giro ederra izan zen.



Josetxo Urrutia, Adunan. J. AMONARRIZ

**Tosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Barriola eta Jaunarena erraz gailendu dira buruz buruko lehen kanporaketan

Igandean final zortzirenetan lehiatuko dira; Olazabal aresoarra final-laurdenetarako sailkatu da

## I. Terradillos

Abel Barriola eta Iker Arretxeren arteko norgehiagokarekin ekin zion ostiralean Legazpin, Buruz Buruzko Pilota Txapelketak. Leitzarra erraz gailendu zen, eta 22-11ko markagailuarekin bukatu zen partida. Arretxe II.a 1-5 aurreratu zen, baina, Barriolak ederki jakin zuen moztan, eta segituan eman zion buelta partidari. Leitzarra nagusi izan zen partida osoan, pilotoean berak agindu zuelarik.

Bestalde, Jaunarena leitzarra eta Leitzan bizi den Olaizola I.a neurtu ziren atzo, Eibarko Asteleanean. Jaunarena bikain aritu zen, eta hiru tantotan utzi zuen aurkaria. Jaunarenarentzat buruz buruko lehen txapelketa da gorenko mailan, eta bera da, gainera, aurtengo txapelketako pilotaririk gazteena. Aurkaria, Olaizola I.a, berriz, 38 urterekin helduena da. Jaunarenari guztia atera zitzaion ongi, eta sake arrisksutsua eta eskuin kolpe bikaina dituela eraku-



Jubenilen mailako partidaren une bat, larunbatean Tolosako Beotibar frontoian. A. IMAZ

tsi zuen. Olaizolak, berriz, gehiengo eutsi ahalko ziola espero zuela onartu zuen partida amaitsu ostean.

Buruz buruzko gainerako kanporaketei dagokionez, Beroiz nagusitu zen Ezkurdiaren aurkakotan, 22-18, eta Urrutikoetxeak egin du aurrera, bere aurkariak txapelketa utzi baitu.

Final zortzirenetako partidak datorren igandean, maiatzaren 12an jokatuko dituzte. Barriolak Retegi Biren aurkakoa izango du, Xalax Urrutikoetxearen aurka jo-

katuko du, Jaunarenak Zabaletaren aurka, eta Albisuk Beroizen aurka.

## Olazabal, final-laurdenetan

Bestalde, Promozio mailako txapelketan, Mikel Olazabal aresoarrrak final-laurdenetara sailkatu du, Jon Apezetxearen aurka 22-16 nagusitu ostean. 26 urteko pilotariak kontratua berri du Asperekin, abendura arte. Hilabete honetan bertan bukatzen zitzaion kontratua Eibar-ko enpresarekin. 2007ko abuz-

tuan debutatu zuen Olazabalek, eta sei denboraldi egin ditu Asperekin.

## Migel Soroaren oroimenezkoa

I. Migel Soroaren Oroimenezko Ogiberri Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu dute asteburuan Tolosako Beotibar pilotalekuan. Jubenilen mailan, Ugalde Alduntzinek 22 Mujika-Sanchezek 10 egin dute. Elite mailan, berriz, Elezkano-Diezek 13 eta 22 galdu dute, Urbietta-Etxamendiren aurka.

## Final-laurdenetarako sailkatu dira Joseba Otaegi eta Jon Rekondo

Maiatzaren 11n jokatuko dituzte bi final-laurdenak; lau aizkolari sailkatuko dira finalerdietarako

## I. Terradillos

Urrezko Aizkora Txapelketako final-laurdenetarako txartela lortu dute Joseba Otaegi zizurkildarrrak, Jon Rekondo leitzarrrak, Aitzol Atutxa dimoztarrrak eta Julen Kañamares arostegeiarrrak. Final-laurdenetan lehiatuko diren zortzi aizkolariak zehaztuta daude dagoeneko, lehendik sailkatuak baitzeuden beste laurak: Mugertza II.a mutrikuarra, Ander Erasun iturendarra, Floren Nazabal Etxarri-Aranazkoa eta Juanjo Lopez lezaundarra.

Rekondo, Otaegi eta Larrañaga larunbatean lehiatu ziren, Ataungo kanporaketan. Denbora guztiak batuta, Rekondoren denbora 15:37 izan zen, 16:23 Otaegirena eta 18:42 Larrañagarena. Asteburuko beste kanporaketa herenegun jokatu zen, Galdakaon. Jexux Mari Mujika ibartarrak ez zuen lortu lehen bi postuetan sailkatzea. Hirugarren geratu zen, Aitzol Atutxa eta Julen Kañamaresen atzetik.

Maiatzaren 11n jokatuko dituzte bi final-laurdenak, eta bakoitzean lau aizkolari lehiatuko dira. 11:30ean, Urduñan Lopez, Mugertza II.a, Rekondo eta Kañamares III.a ariko dira, eta Diman 19:00etan, Floren Nazabal, Aitzol Atutxa, Joseba Otaegi eta Ander Erasun lehiatuko dira. Final-laurden bakoitzetik bi aizkolari sailkatuko dira finalerdietarako.

Alegiak, Tolosak eta Zizurkilek jokatu dute aste honetan; Tolosa ariko da zesta puntako txapelketan

## I. Terradillos

Alegia, Amezketak, Berrobi, Bidegoian, Tolosa eta Zizurkil ariko dira Herriarteko Pilota Txapelketan lehiatzen. Guztira 22 herrik hartuko dute parte maiatzaren 12an hasiko den txapelketan. Lehenengo jardunaldian Alegiak, Tolosak eta Zizurkilek jokatu dute. Zestoan jokatu dute alegiarrek Zestoaren aurka, Zumarragaren aurka, Tolosak Zumarragan eta etxean jokatu du Zizurkilek, Lezoren aurka.

Beste hiru partidak Astigarraga-Lasarte Oria, Ataun-Errenteria eta Arrasate-Oiartzun izango dira. Bigarren jardunaldian itzuliako partidak jokatuko dituzte, eta orduan final zortzirenetara sailkatuko dira puntu gehien dituztenak. Bidegoian, Berrobi eta Amezketak final zortzirenetan sartuko dira, maiatzaren 26an. Hernani izan zen iazko irabazlea Berrobiren aurka finala irabazita.

# Eskualdeko sei herrik hartuko dute parte Herriarteko Txapelketan

Herriarteko Zesta Punta Txapelketan Tolosa, Donostia, Mutriku eta Zumaia ariko dira. Hilaren 12an izango da lehen jardunaldia. Bertan Tolosak Zumaiaen aurka jokatu du, eta Donostiak Mutrikuaren aurka. Iazko txapelketako garailea Zumaia izan zen. Pala Txapelketari dagokionez, ez da Tolosaldeko herririk ariko lehiatzen.

## Kutxak ez du babestuko

Txapelketaren aurkezpenean Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol zuzendaria Asier Sarriegi, Mikel Arregi Gipuzkoako Pilota Federazio-ko ordezkaria, Gorka Iturri Rural Kutzako ordezkaria eta Gorka Garmendia Ogiberriko ordezkaria izan dira.

Mikel Arregik adierazi duenez, Kutxarekin lau hamarkadetan Herriarteko Txapelketak izan duen harremana etentzat jo dute, «aurten ez babestea erabaki baitu». Ogiberri izango da babesle nagusia, Rural Kutxarekin batera. Era berean, Gipuzkoako Pilota



Asier Sarriegi, Mikel Arregi, Gorka Iturri eta Gorka Garmendia. I.T.

Federazioa babesten duen heinean, Foru Aldundiak ere lagunduko du txapelketa.

Foru Aldundiko kirol zuzendaria azaldu duenez, pilotan murrizketarik ez egitea erabaki dute: «Euskal pilota gure kirola da, zaindu beharrekoa, eta horregatik pilotara bideratutako laguntzak mantentzea erabaki dugu, pilota bultzatzea eta laguntzea delako gure helburua, eta datozten urteetan ere asmo bera dugu».

Gorka Iturrik, berriz, Rural Ku-

txarentzat pilota txapelketaren babesle izatea «ohore» bat dela adierazi du, Euskal Herriari pilotak «oinarriko kirola» baita. «Txapelketan jokatzeko duten gazte asko ziur goiko mailatan jokatzeko ikusiko ditugula etorkizunean; ea txapelketa polita ateratzen den eta guztiok disfrutatzen dugun», esan du. Gorka Garmendiak, berriz, Ogiberriren «pilotarekiko zaletasuna» nabarmendu du, eta aurrerantzean ere gisa honetako txapelketak babesten jarraitzeko nahia adierazi du.

## Tolosako Udala

2013ko apirilaren 30ean izandako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin 2012-2013 ikasturteko Ordenantza Fiskalak eta eranskina aldatzea eta 2.2.10 eranskina aldatzea erabaki zuten.

Hartutako akordioak Udaletxeko iragarki taulan ageri dira 30 egun abiletan zehar, iragarki hau G.A.O. agertu eta hurrengo egun abiletik hasita. Epe honetan, 11/1989 Arau Foralak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunek espeditatea aztertuta ahal izango dute eta egokitzat jo ditzaten erreklamazioak aurkeztu. Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamaziorik edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik behar. Tolosan, 2013ko maiatzaren 2an ALCATEA





≈ 23°  
≈ 15°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATSALDEA LANITUTA  
BEROENA 20°  
HOTZENA 12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta/Leitza:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza/Leitza:** 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak**

**BERTAKO  
SM-ko kideak:**



**Galtzaurdi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Arnezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zailantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

**Agurrak**



**Urte askoan Manex!**

**Manex Castro Zabaleta (Villabona).** Besarkada indartsu eta iraultzaileak!  
Euskal preso eta iheslariak etxera! Maite zaituztegu!



**Zorionak Manex!**

Zure alaba eta iloben partetik muxu erraldoiak! Maite zaitugu!  
Eutsi goiari!



**Zorionak Manex!**

Besarkada handi bat zure kuadrilaren partetik.



**Agenda**

**GAUR**

**DEIALDIAK**

- **Anoeta.** Maiatzak 30eko greba orokorrak bat egin du herriko jaiekin. Hori dela eta, greba batordea osatu dute. Talde honet, herriko festetako eguna nola antolatu erabakiko du, gaur, 18:30ean, udaletxean.
- **Berastegi.** Haur eskolan izena emateko epea zabaldu dute. 2012 eta 2013 urteetan jaiotako haurren gurasoei zuzendua dago, eta maiatzaren 13a izango da azken eguna.
- **Ikaztegieta.** Auto konposta etxean egin nahi duenak izena emateko aukera du udaletxean. Hilaren 10a baino lehen, 943 65 33 29 telefonora deitu behar du familia bakoitzak. Auzo konposta egin nahi dutenek ere izena eman behar dute.
- **Tolosa.** Raul Ibañez, EHUKo Geometria era Topografia ira-

kasleak matematikeli buruzko hitzaldiak eskainiko ditu.

- **Tolosa.** Berria egunkariaren 10. urteurrenaren harira, Anje Duhaldek kontzertua eskainiko du, hilaren 17an, 20:30ean. Sarrerak, Tolosaldeko eta Leitzaaldeko HITZA egunkariaren egoitzan daude salgai.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Egunekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Aziproz, L. Amaro azuloa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

**Mauka berria** **GAURKO ESKAINTZA**

**8-10 kilometroko rafting-a Gallego ibaian**

UR PIRINEOS  
Ctra. A132 - KM. 38  
MURILLO DE GALLEGO 22808 - ZARAGOZA  
Tel.: 974-38 30 48 / 606-36 30 43  
www.urpirineos.es

**Prezioak**  
**27,50€**  
II. mailakoa  
**32,50€**  
III. mailakoa

**www.mauka.eu** **berria** taldea